

Esnea produzitzeari utziko diotenei litroko 9 pezeta ordainduko diete

Eusko Jaurlaritzak esne kuota erreserba sortu eta produkzioa murriztu nahi du horrela

Esnea ekoizteari utziko dioten euskal ganaduzaleei produzituko ez duten esne litroko 9,34 pezeta ordainduko die Eusko Jaurlaritzak, esne produkzioa murrizteko prestatzen ari den programaren arabera. Nafarroako Gobernuak ere antzeko neurriak daramatza aurrera.

GASTEIZ

Euskal Autonomi Elkartearen 313.000 tona esne produzitzen dira urtean, hau da, dauden 69.449 behiek 4.500 bat litro ematen dute. Produzitzeari uzteko Gasteizko Gobernuak prestatzen diharduen dokumentua esne sektorearen azken aholku mahaiaren aurkeztu zen eta EHNE sindikatuak ezagutarazi zuen atzo.

Ekoizteari uzteko programaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren helburua EA Erako esne kuota erreserba sortzea da. Horrela, Europako Komunitateak produkzioa murrizteko egin duen agindua beteko litzateke. Bestalde, gehiago produzitu nahi dutenei kuota osagarria emango litzaike.

Agiri horren arabera, beren borondatez produzitzeari uzten dioten baserritarrei 9,34 pezeta ordainduko litzaike zazpi urtez. Baina programa horren laguntzak jasotzeko baldintza eta betebeharrak jarriko ditu Gasteizko Exekutiboak.



Baserritarrek produzitzen ez duten esne litroko 9,34 pezeta jasoko dute.

CARLOS VILLAGRAN

BALDINTZA, KONPROMEZU ETA LEHENTASUNAK Lehendabiziko baldintza esne industriari emandako 1985. urteko produkzio kopurua eta baserritarrek industriari gaur egun esnea ematen segitzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea da.

Erreferentzia urte hartan ganaduzale batek ezinbestean produzitzeari utzi behar izan balio ere eskatu lezake programa horretan sartzea.

Era berean, 1985ean produkzio jaitsiera gertatu izan balitz beste erreferentzia urte bat aukeratu lezake, 1983 edo 1984a adibidez.

Esnea ekoizteari utziko dion

baserritarrek konpromezu batzuk hartuko ditu, Eusko Jaurlaritzaren programaren arabera. Horrela, ezin izango du bere ustategia produkzioerako erabili eta esne kuota jasotzeko eskubidea betiko galduko du.

Halaber, baserritarrek baja eman beharko dituzte beren esne behiak Diputazioko erregistrotik eta hornitzaile izateari utzi diola jakin eraziko dio dagokion esne zentralari.

Gasteizko Gobernuaren ziri-borroaren arabera, hiru kasutan dauden baserritarrek lehentasuna izango dute programaren laguntzak jasotzeko. Osasun arazoengatik ustategia matentzeko zailtasunak dituztenek, adin handia

daukatenek —60 urtetik gora alegia— eta urtean 30.000 kilo baino gutxiago merkaturatzen dituztenek izango dute lehentasuna.

NAFARROAN DEKRETUA ONARTU

Nafarroan ere atzo goizean Gobernuak izan zuen bileran esne kuota erreserba Forala ezarri dute dekretu baten bidez. Esnea produzitzeari uzteko aukerak ere dekretu berean bideratu du nafar Gobernuak.

Foru Elkarteak Estatuarekin lortu duen akordioari esker, Madrileko Gobernuak ez du Erre-serba Foralaren Dekretuaren aurka egingo.

CFDT sindikatuak Bidasoako hirien hitzarmena salatu du

M. ESTEBAN / DONAPAULE

Orain dela aste batez izenpetu zen Irun, Hondarribia eta Hendaiaren arteko 1993rako hitzarmen estrategikoa salatu du CFDT sindikatuak. «Hitzarmen horrek ez du zentzurik, ikusita batez ere nola hiri bakoitzak bere aldeetik jarraitzen dien beren xedeei», adierazi zuen Manolo Alkaiaga CFDT sindikatuko Ipar Euskal Herriko idazkari nagusiak.

Alkaiagak gaineratu zuenez: «Orain dela gutxi izenpetu zen hitzarmena ezer gutxi da, ez bait dira gauzak aski aurretik pentsatu. Adibidez, aipatzen da hirien arteko koordinakundea ekonomi arloan batez ere, baina errealitatean konturatzen da hiri bakoitzak jarraitzen diola bere bideari bakarrik».

CFDT sindikatuaren ordezkariak industria lur antolakuntzaren strategi batua falta salatu zuen: «Bidasoako 1993. urteko Estrategi Plangintza honetan ez da ezer pentsatua eremu batu bat egiteko in-dustriarentzat adibidez. Izan ere, hiri bakoitza ados da ikerketa egiteko eta hitzegiteko, baina kanpoko enpresa bat etorriko delarik non kokatuko da? Ez bait da ondo definitua oraindik, pentsatzen ahal da hiri bakoitza borrokan sartuko dela enpresa berri hau bere lurretara ekartzeko».

Milaka baserritar bildu ziren Iruñean beren egoera salatzen

T.S. IRUÑEA

Milaka baserritar, bost edo sei mila antolatzaileen ustez, bildu ziren atzo Iruñean UAGN sindikatuak antolatu zuen manifestazioan parte hartzeko. Traktoreak ezezik, ardiak, ahuntzak eta behiak ere ikus zitezkeen Gaztelu enparantzan, hala nola azak, lextuak eta beste barazki mota batzuk, baserritarrek ekarritakoak. Antolatzaileak pozik zeuden beren deiak izan zuen arrakastarekin, eta ekintza hau ez dela azkenekoa izango gaineratu zuten.

Angel Eraul UAGN sindikatuko presidentea mintzatu zen manifestazioa bukatu ondoren, baserritarren interesak defendatu beharra azpimarratzeko, eta «jasaten ari garen egoeran itxaropen handiak ez izan arren, gaurko erantzun honetan garbi ikusten da gure beharrak eskatzeko prest

gaudela», azaldu zuen Eraulek. Erreibindikatzen zituzten bederatzita puntuak aipatu eta eskatu zituen.

«Gobernuak Madril aldera bidaltzen gaitu, Madriletik Bruselera, eta han ere ez digute kasurik egiten, gure hitzak ez dituzte ulertzen», adierazi zuen hizlariak. Aurrera eraman behar duten borrokan «laguntza konpentsatorioak eskatu behar ditugu, baserritar bakoitzaren errendimenduari dagozkionak», zioen Angel Eraulek.

Esnearen kuota, Nekazal politikaren erreforma, ibaien erregulazioa eta Nafarroako ubidearen eraikuntza, eta nekazaritzatik bizitzeko eskubideari buruz aritu zen, sektore honen egoera larria aztertuz. Aurrekontuak direla eta, nekazaritzak behar duen adina jaso behar duela zioen, dauden beharrei aurre egiteko.



Traktoreak, ardiak, ahuntzak eta behiak ikus zitezkeen atzoko manifestazioan.

JOXE